

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DITUEN SOZietATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Irrati Telebista (EITB) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen sozietateen 2012ko ekitaldiaren Urteko Kontuen fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek.

Fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu langileria eta ondasunen kontratazio, hornidura eta zerbitzuen alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean Epaitegiak uste du EITBk eta mendeko sozietateek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jardura arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Langileriarri dagokionez, HKEEk azpimarratu du 2012ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzionalarako irispidea 3 pertsonak izan dutela Erakundearen sorrera legeak aurreikusten duen “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta; 3 horiek ez zuten aldeztatik kontratu-loturarik erakundearekin, ez eta goi kargudun kontraturik ere; honenbestez, lan kontratu finkoak egin zaizkie merezimendu eta gaitasun printzipioak batere bete gabe, aipatutako Legeak agintzen duen moduan.

Erakundearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu Bateratuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.